



EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK ARLO JURIDIKOAN

EUSKARA BIZIRIK, EUSKALDUN GUZTION AHALEGINAREN ONDORIO

Ainara MATIAS
Miren ARRANZ

AURKIBIDEA: I. Sarrera.-II. Urratsez urrats, historian zehar. 1. Frankismo garaia. 2. Demokrazia garaia. 3. Autonomia Erkidegoen Estatuak. 4. Euskararen biziberritzea herri-administrazioan. 5. Normalizazio-planak. 6. Beste ekimen batzuk.. 7 Euskaltzaindiaren ekarria. 8 Aisialdiaren eremua. 9. Hezkuntzaren alorra. 10. Egungo egoera. **III. Euskararen normalizazioa arloz arlo.** **IV. Euskararen erabilerari buruzko datuak.** **V. Konklusioak.**

I. Sarrera

Historian zehar, sekulako esfortzu soziala egin da, gure identitatean dagoen eta gure kultura osatzen duen hizkuntza berreskuratzeko: euskara, alegia. Euskararen erabilera ez da homogenea izan historian zehar, nolabaiteko eboluzioa egon da.

Artikuluari zehar euskararen erabilerak izan duen bilakaera nolakoa izan den aztertuko dugu. Lehendabizi, Espainiar estatuaren historia ikertuko dugu, une bakoitzeko gobernu eta kontzientzia ezberdinek euskara modu sakonean mugatu dutelako. Ondoren, euskarak bizitzaren alor ezberdinetan duen papera arakatuko dugu eta euskararen erabilerari buruzko egungo datu objektiboak eskainiko ditugu.

Artikuluak zuzenbideko ikasleentzat jakinagarria izan daiteke, euskara Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofiziala izanik, epaitegi, auzitegi, prozesu, udal eta administrazioaren edozein erakundetan erabili behar delako. Horren ondorioz, azken urteetan ahalegin handia egin da euskara zuzenbide eremuan txertatzeko. Aurrerapauso handiak egin dira, profesionalen eta hiritarren arteko harremanetan euskaraz egitea ahalbidetzeko.

Euskarak urratsak egin behar izan ditu, hizkuntza honek zuzenbidearen aplikazioa eta profesionalen eta hiritarren arteko harremanak erraztu behar ditu

II. Urratsez urrats historian zehar

1. Frankismo garaia

Behin gerra zibila bukatuta Frankismoa ezarri zen. Orduan, euskaraz soilik landa- eta baserri-eremuetan hitz egiten zen. Horrenbestez, euskara gizarte-talde minoritario batek mintzatzen zuen. Gainera, talde dirudunek euskara mespretxatu egiten zuten. Beraz, ez zegoen ondo ikusia euskaraz egitea.

Francok Espainiar herrialdearen zentralizazio absolutua defendatzen zuen: “Espainia, nazio bakarra, handia eta askea”. Espainia “bakar” horrek honakoa zekarren: lurralde bakarra, eta





ondorioz, hizkuntza bakarra. Hizkuntza hori, gaztelania zen. Hori dela eta, hizkuntza minoritario guztiak alde batera utzi ziren, erabat baztertuta.

Esan daiteke erabat debekatu zirela, nolabait. Muturreko kasuetan, euskaraz egitea zigortu egiten zen (eskoletan, adibidez). Egoera horretan, hizkuntza minoritarioak eremu pribatuan bizirik jarraituzuten bakarrik, familietan, eta bereziki, landa-eremuetan. Hirietan galdu egin ziren ia-ia

2. Demokraziaren garaia

Demokraziaren hasierak ideien zabalpena ekarri zuen, eta ondorioz, ordura arte legez edo tazituki debekatuta zeuden praktiken tolerantzia. Demokraziaren hastapenarekin, beste eskubide eta baloreak berreskuratu ziren (hala nola, bozkatzeko eskubidea, hauteskunde askeak izateko eskubidea, elkarte politiko guztiek parte hartzeko eskubidea eta abar).

Horrela, gure kulturaren ohitura ziren praktika asko berreskuratu ziren, eta horien artean bereziki hizkuntza zuten autonomia erkidegoek ahalegin handia egin zuten bere hizkuntza minoritarioak berreskuratzeko, frankismo garaian hauen erabilera erabat baztertuta geratu baitzen

3. Autonomia Erkidegoen Estatuak

1978. urteko Espainiar Konstituzioak, berriz, honakoa ekarri zuen: Espainiar estatuak autonomia erkidegoetan bananduta antolatzea. Behin autonomia erkidegoak aitortuta, “historikotzat” jotzen ziren autonomia erkidegoak (Euskadi, Katalunia, Galizia) beren hizkuntza propioa izateko eskubidea lortu zuten.

Horren ondorioa hurrengoia izan zen: eskualdeko hizkuntza horiek hizkuntza koofizialak izatea. Harrezkero, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroak bi hizkuntza ofizial ditu: euskara eta gaztelania. Bata bestea bezain ofiziala. Ordudanik, euskal gobernuek esfortzu handia egin dute euskara berreskuratzeko, hainbat estrategia eta iniziatiben bitartez. Geroztik, euskararen derrigortasuna indartu egin da, bereziki Administrazio Publikoaren eremuan.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako udalek eta erakundeek ahaleginak egin dituzte gure hizkuntza koofizialak (euskara eta gaztelania) behar bezala bermatzeko.

4. Euskararen biziberritzea herri-administrazioan

Administrazioaren alorrean, edozein zerbitzu edozein hizkuntza ofizialetan, gaztelaniaz zein euskaraz, jaso ahal izateko eskubidea aitortu da. Helburu hori lortzeko, langileen euskalduntze prozesu bat jarri da martxan.

Beraz, administrazioan lan egin behar duten langileek euskaraz nolabaiteko ezagutza eta menperatzea izan behar dute beren lana behar bezala garatu ahal izateko.

Halaber, udal gehienek euskararen erabilera sustatzeko ordenantzak egin dituzte. Horien arabera, norbaitek informazioa gaztelaniaz eskatzen bada, euskaraz zein gaztelaniaz da eta euskaraz galdetzen bada, soilik euskaraz erantzun egingo da. Zein helburu ote dago horren atzean? Erabiltzen ez dutenentzako euskara ikusgai egitea, erabiltzera animatu daitezten.



Horrenbestez, xedea honakoa da: euskara begi-bistakoa, agerikoa egitea eta ofizialtasuna lortzea

5. Normalizazio- eta erabilera-planak

Horrekin batera, euskararen normalizazio planak jarri dira martxan. Izan ere, Euskal Administrazio Publikoko erakunde askok (diputazioek, udalek eta abar) ordenantza eta plan ezberdinak garatu dituzte, bi alorretatik: kanpotik (hizkuntzen alorrean hiritarrei zein nolako trataera emateko) eta barnetik (zein erabilera mota izango duen euskarak). Euskal Administrazioa gai izango da bere zerbitzuak edozein hizkuntza koofizialetan emateko. Hala, hiritarrek eskubide efektiboa izango dute Administrazioa euskaraz zein gaztelaniaz zuzentzeko. Horretarako, Langileen gaikuntza beharrezkoa izan da. Hau da, Euskaraz ondo moldatu beharra.

Adibidez, Irunen, “Kalean bai” ekimena jarri da martxan. Programa bat da, hitzarmen ugari biltzen dituen hiriko elkarte eta asoziazio askorekin elkarlanean aritzeko (kirol elkarteekin, kulturarekin lotura duten elkarteekin eta abar). Hitzarmen horietan, ezarri egin da euskarak zein nolako papera izango duen beren funtzionamenduan. Beraz, elkarte eta asoziazio horiek euskara erabiltzeko konpromisoa hartu dute. Orobat, Irungo udaletxeak dohainezko itzulpen zerbitzuak eta bestelako tresnak jarri dituzte elkarte horien esku. Zerbitzu horiei esker, elkarteek beren zeregina euskaraz egin ahal izango dute erraztasun handiagorekin.

6. Bete ekimen batzuk

Bestalde, euskara beste eremu askotan sustatu da: gobernuetan, diputazioan,... beste modu askotan bultzatu da. Adibidez, festa-, kultura- eta jolas- ekintzak garatzen dituzten asoziazioek euskarari tratamendu berezia ematen badiote eta haren sustapena bultzatzen badute, segur aski diru gehiago inbertituko da haietan. Proiektu asko daude euskararen erabilera piztera bideratuta. Halaber, ikastolak eta euskal eskola publikoak izugarritzko laguntza jaso dute, honelako ekintzekin: “herri urrats”, “kilometroak”, “korrika” eta abar. Horiek, euskarri edo sostengua administrazioan lortzeaz gain, euskarri soziala bilatzen dute, euskararen erabilera orokortu dadin. Beraz, eremu publikoan izugarritzko ahalegina egin da euskararen erabilera areagotu dadin.

Hori dela eta, alderdi publikotik aurrera eraman diren ekintza guztien baturak eta euskarari mesede egin dioten aldaketa kultural zein politikoek honakoa eragin dute: egungo belaunaldi berrietako hiritar gehienak ia-ia euskaraz egiten jakitea. Gehienak euskaldunak dira, euskal hiztunak, hain zuzen. Orobat, kontuan izan behar dugu faktore ugari daudela beste hizkuntza batzuk (hala nola gaztelania, frantsesa eta ingelesa) nagusitzen dituztenak eta euskara, modu batez, alde batera uzten dutenak. Errealitatea da izugarritzko bilakaera egon dela eta euskaraz hitz egiten duten, edo, behintzat, euskara ulertzen duten pertsonen kopurua biderkatu dela, euskara kaltetzen duten kanpoko faktore horiek gorabehera. Horrenbestez, Euskal Herrian izugarritzko eboluzioa egon da euskararen erabileran.

7. Euskaltzaindiaren ekarpena



Horrekin batera, Euskaltzaindiak egin duen ahalegina aipatu eta nabarmendu behar dugu: Euskal Herriko eremu ezberdinetan erabiltzen diren euskalkiak (hau da, euskararen aldaera ezberdinak) aztertu egin ditu eta kontuan hartu ditu. Horren emaitza: euskara batua eta bateratua sortu du.

Horren bitartez, euskara bateratua sortu du, euskara estandarra, alegia. Euskara hori izango da Euskal Administrazio publikoan langile guztiek erabili beharko dutena, telebistako programek zein irratiko kazetariak printzipioz erabiliko dutena eta eskoletan irakatsiko dena. Euskalkien bateraketa horrekin honakoa lortu da: hizkuntza bat, arau argiekin. Euskaltzaindiak arau zehatzak ezarri ditu, euskara idatziz zein ahoz erabil dadin.

8. Euskara aisialdiaren eremuan

Berebat, aisialdi eremuan izugarri erabiltzen da euskara. Une batera iritsi gara non familia, lagun eta pertsona-talde gehienek euskara naturaltasun osoz hitz egiten duten beren harremanetan. Pertsona gazteek eta gazteak ez direnek, naturaltasunez euskaraz hitz egiten dute eta ekintza eta jarduera ugari euskaraz garatzen dituzte. Geroz eta euskal hiztun gehiago daude. Gogoan badugu alde aurretik azaldutako frankismo garaian euskarak gizartean zuen papera, baieztatu dezakegu izugarritzko bilakaera egon dela eta azken urteotako kontzientzia sozialak mesede egin diola hein handi batean.

Zehazki Euskal Autonomia erkidegoan, iniziatiba eta ekimen asko aurrera eramán dira euskararen erabilera sustatzeko. Horien artean, honakoa azpimarratu behar dugu: “euskaraldia”, orain dela gutxiakoa baita. “Euskaraldia”k hurrengo bilatu du: euskaraz ondo moldatzen direnek eta hizkuntza behar bezala menperatzen dutenek euskara erabili dezatela eta euskaraz zeharo ondo moldatzen ez direnek, baina hizkuntza honi buruzko ezagutza handitzeko interesa dutenek, eta euskararen erabileran hobetu eta aurrera egin nahi dutenek euskararen erabilerara batu daitezela.

Horrenbestez, euskara erabat menperatzen dutenek euskara kontsolidatu eta finkatu dezatela eta beren euskara suspertu nahi dutenak animatu daitezela. Ekimen honek euskararekiko jarraitzearekin lotutako bi kontzeptu berri ekarri ditu: “ahobizi” eta “belarriprest”.

9. Hezkuntzaren alorraren garrantzia

Horrekin batera, hezkuntzaren papera sakondu behar dugu. Hezkuntza, euskararen erabileran, izugarritzko papera du. Zergatik? Hezkuntzari esker, haurrek eta belaunaldi berriak sustrai-sustraitik hartuko dutelako euskarari buruzko ezagutza.

Belaunaldi guztiekin euskara lantzea ezinbestekoa da euskararen erabilera etorkizunean bermatuta egon dadin. Horretarako, zer egin behar izan da? Lehenik eta behin, logikoa denez, irakasleek eta hezitzaileek formakuntza jaso dute, euskara behar bezala menperatu dezaten. Xedea da euskal irakasleak eskola euskaraz eskaintzen jakitea. Hortik abiatuta, adin guztietako ikasleek, txiki-txikitatik euskara entzun eta barneratuko dute.

Eskola euskaraz eskaintzeko, eredu linguistikoa ezberdinak martxan jarri ziren, euskararen erabilera hezkuntzan bultzatzeko helburuarekin. Zehazki, hurrengo ereduak ezarri ziren: A





eredua (dena gaztelaniaz), B eredua (mistoa, hots, gaztelaniaz zein euskaraz) eta D eredua (dena euskaraz).

Euskara hezkuntzan txertatzea ezinbesteko aurrerapausoa izan da, horri esker, milaka eta milaka hurrek euskara sustrai-sustraitik ikasi eta barneratu dutelako, ama-hizkuntza gisa. Halaber, hurrek euskaraz egin behar izatea honakoa ekarri du: euskara behar bezala menperatzen ez duten guraso askok euskara ikasteko ahalegina egin dute, hurrek eskoletan dituzten zereginekin laguntzeko.

10. Egungo egoera

Zer ondorioztatu dezakegu Euskal Autonomia Erkidegoan euskaren erabilera sustatzeko egin den ahaleginaren eta martxan jarri diren neurri eta jardueren inguruan? Euskararen alde nolabaiteko diskriminazio positibo bat egin dela, euskara berreskuratu ahal izateko. Agerikoa eta bistakoa da euskara, gaztelaniaren parean, egoera ahul batean dagoela. Horren aurrean, euskal erakunde askok euskara indartzeko eta suspertzeko irtenbidea bilatu dute.

Lehen esan bezala, euskara historiako gobernu eta ikuskera sozialetara mugatuta egon da, nabarmen. Une bakoitzeko alderdi sozialen bultzatu duten politikak izugarritzko eragina izan du euskararen erabileran. Zein panorama dugu gaur egungo politika egoeran?

Badakigunez, badaude alderdi politikoak zentralistak direnak, hala nola, alderdi popularra eta egun puri-purian dagoen VOX alderdia. Hauek, estatu bakarra eta bateratua defendatzen dute, eta ondorioz, hizkuntza bakarra. Beraz, alderdi politiko hauek ez diote mesede handirik egiten eskualdeko hizkuntza minoritarioei.

Dena dela, esan beharrekoa da azken urteotan alderdi popularrak, behintzat, euskararen aldeko tolerantzia azaldu duela. Bestalde, Euzko Alderdi Jeltzalea eta Bildu alderdi euskaltzaleek euskararen erabilera sustatzen eta defendatzen dute, zalantzarik gabe.

Azkenean, gogoan izan behar dugu euskara hizkuntza zaharrenetarikoa bat izan arren eta historian zehar euskararen kontra egin den presioa gorabehera, ez dela galdu egin. Munduan zehar hizkuntza ugari galdu ira, herrialde zein eskualde asko ez direlako horietaz behar bezala arduratu. Euskararen erabileran diru asko inbertitu da. Eta diru eta ahalegin horrek bere fruituak eragin ditu.

Honen adibide da, Durangoko azoka, izugarritzko arrakasta baitu ikusle eta salmentei dagokienez.

III. Euskararen egoera arloz arlo

Azaldutakoarekin batera, euskararen erabileran beste alor batzuetan aztertu behar dugu:

- Osasun arloan, euskararen erabilera nabarmenki sustatu da. Erietze batean langile ugari daude (medikuak, erizainak, laguntzaileak eta abar). Langile horien guztien lanari dagokionez, profesionalak izateaz gain, galdatzen da gaixoei edo hiritarroi oro har euskaraz zuzentzea. Honen bitartez, gaixoa eta medikua harreman estuago edo hurbilago





bat lortuko da. Osasun arloko profesional guztiek argibide eta jarraibide zehatzak jaso dituzte beren zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan eskaini ditzaten. Era horretan, pazienteak edozein hizkuntza ofizialetan hitz egingo du medikuarekin, eta honek, hark aukeratutako hizkuntzan erantzuteko obligazioa izango du. Horretarako, ezinbestekoa izan da osasun arloko profesionalen gaikuntza euskararen ezagutzan.

- Komunikabideak ere, garrantzitsuak dira euskararen erabilera behar bezala bermatu dadin, euskara zabaltzen baitute. Honakoa azpimarratu behar dugu: EITBren sorkuntza, eta euskal- telebista eta -irradi publikoak. Hauen xedea da euskararen erabilera laguntzea eta zabaltzea, helburu informatibo eta kulturelekin, baita aisialdi eta entretenimendu xedearekin ere. Autonomi erkidego txikia da, baina halere, berezko telebista eta irratia daukagu. Honen bitartez, euskararen erabilera kontserbatzeko izugarritzko tresna da. Telebista, irratia eta bestelako komunikabideak proiektzio handia daukate sozietatean eta euskara hauetan erabiltzea oso garrantzitsua da. Duela urte batzuk, zineman euskaraz itzulita zeuden pelikulak ikustea arraroa zirudien. Hala eta guztiz ere, gaur egun, lortu da filmak euskaraz igortzea eta ohikoa egiten zaigu. Ahalegin honekin, ez da soilik hizkuntzaren kontserbazioa bilatzen, baizik eta hizkuntza bera bizirik egotea, erabiltzea; komunikazio tresna izatea, alor guztietan.

- Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden atzerritarren papera ere azpimarratu behar dugu. Gaur egun, atzerritar bat ikastetxe publiko batera joaten bada, euskara ikasiko dute eta beste ikasle guztiek bezala euskaraz egin behar dituzte zenbait azterketa. Eskoletan egiten den ahalegin honi esker, atzerritarrak euskaldun berriak bihurtuko dira, eta beraz, euskararen erabilera sustatuko da.

- Horrekin batera, euskal lurraldea arakaturik, non kokatzen da gehienbat euskararen erabilera? Euskararen erabilera herri txikietan mantendu da, izan ere hauetan ez dago hiri handietan dagoen jende mugimendu masifikatuta. Jende asko hiri handietara mugitzen da edozein dela arrazoi (normalean lan bila) eta honek kulturen nahasketa dakar. Faktore horrek kulturalki aberasten du sozietatea. Baina euskarari dagokionez, mugimendu horrek beste hizkuntza ez minoritarioei garrantzi handiagoa ematea dakar, eta euskararen erabilera zailtzen du. Horregatik, herri txikietan hobeto kontserbatu da honen praktika.

- Bestalde, elkarte kulturelei, kirol elkartei eta klubei dagokienez, Elkarteko partaideei egiten zaizkien komunikazioak, antolatzen diren jarduerak, informazioa biltzeko eskuragarri dauden webguneak, prentsa bidez bidaltzen diren albisteak, kirol zentroetan gazteei ematen zaizkien formakuntzak,... Nahiz eta berez hizkuntzaren garapena bideratzeko aktibitateak ez diren, hizkuntzaren sustapena dakarte. Adibidez: mendizale elkarte bat, edo txirrindulari elkarte batean parte hartzen duen jendearen artean euskara hitz egiteak gure hizkuntzaren erabilera sustatzea dakar.

- Merkataritzaren eta salerosketen alorrean, bezeroen arretan jarduten duten profesionalak, nahiz eta ez izan Euskal Administrazio Publikoko langile, prest egongo dira galdera eta kontsultak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan



III. Ikasleen ekarpenak



erantzutera. Badago jendea soilik euskaraz hitz egiten duena eta merkataritzan lan egiten duen pertsona ez bada euskaraz ondo moldatzen, ez da komunikaziorik egongo. Horrenbestez, euskaraz jakitea, azken finean, beharra bihurtzen ari da.

- Euskal musika arloan, urrats handiak egin dira eta euskal abestiek, euskararen erabilera sustatu dute. Herri musika ez ezik, denboraren poderioz beste musika batzuek hartu dute indarra bertan, dibertsifikazio gero eta handiagoaz. Ondorioz, jatorrizko eta euskarazko musikari beste aldaera batzuk gehitu zaizkio erlijio musikaren eta, XVIII. mendetik aurrera, Ilustrazioaren bitartez. Esaterako, Fermin Muguruzaren *Sarri-sarri* Ken Zazpi taldearen abestiak, Kepa Junkera eta abar, ospe handia hartu dute, zabaldu dira Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo eta horrek izugarritzko oihartzuna izan du. Horrekin batera bertsolaritza aipatu behar dugu, gainera, azken hau bakarrik euskaraz existitzen da. Bertsolarien lehiaketak ere ospetsuak egin dira Euskal Herritik zein Espainiatik kanpo, izugarritzko meritua baitute. Dena dela, XX. mendetik aurrera, erdarazko musikak pisu nabarmena hartu du Euskal Herrian, eta euskarazko musikak herri tradizioa berritu eta ber asmatu du Ez Dok Amairu eta Gaur mugimendu berritzaileek akuilatuta. Izan ere, 1970ean eta bereziki 1980ko hamarkadan, indarrez sartu ziren nazioarteko joerak euskal musikara.

- Idazle euskaldunek ere euskara nabarmenki bultzatu dute. Liburu ugari idatzi dituzte eta munduan proiektzio handia izan dute. Euskal idazle klasikoaren artean, nabarmentzekoak dira "Axular" (Geroren egilea), Bernart Etxepare (*Linguae vasconum primitiae*), Joan Perez de Lazarraga (Lazarragaren eskuizkribua), Txomin Agirre (Kresala, Garoa), "Lauaxeta" eta "Lizardi". Aipatu beharrekoa da, mundu osoan oihartzun handiena izan duen egungo euskal idazlea Bernardo Atxaga dela; Obabakoak du libururik ezagunena, eta haren lanak hainbat hizkuntzatarara itzuli dituzte. Gaur egungo beste idazle aipagarri batzuk honakoak dira: Unai Elorriaga, Koldo Izagirre, Mariasun Landa, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia, Itxaro Borda eta Arantxa Urretabizkaia.

- Bestalde, Euskal Herriko turismoak euskararen erabilera, edo behintzat, euskararekiko zein euskal kulturarekiko interesa piztu du nabarmenki. Azken urteotan, asko hazi da turismoa Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrenbestez, hau lortu dugu: jatorriz euskaldun ez den jendeari euskal kulturaren aberastasuna erakustea.

- Azkenik, Euskal jaiek, Euskal Herrian ospatzen diren jaiak izateaz gainera, ezaugarri bereziak dituzte. Euskal kultura modu nabarmen batez islatzen dute eta beste herri batzuetako herrien aldean bereziki identitatea indartu egiten dute. Modu horretan, azal daiteke, gainera, Euskal Herriko jaiek denboran nahiz espazioan zehar duten ugaritasuna eta trinkotasuna izugarritzkoa dela. Aipagarriak dira euskal folkloreko jaiak, alardeak, kirol jaiak, hiriburuetakoa jaiak, inauteriak, sanferminak eta abar. Euskal herriko jaiek euskal kultura eta euskara sustatzen dute dudarik gabe.

IV. Euskararen kaleko erabilera: zenbait datu



Euskararen erabileraren neurria zein den ziurtatzeko, ezinbestez datu objektiboak aztertu behar ditugu. Horrenbestez, jarraian, euskararen erabilerari buruzko informazioa eskainiko dugu. Horretarako, azterketa sakon bat egingo dugu eta adina, sexua eta Euskal herriko lurralde ezberdinak erreferentzia gisa hartuko ditugu:

Hainbat inkesta egin ondoren, egiaztatu da herritarren %12,5 egiten dutela euskaraz Euskal Herriko kaleetan. Zenbat eta gazteago, gehiago erabiltzen da euskara. Hala ere, adin talde guztietan ari da erabilera jaisten. Lehen aldiz, Gipuzkoan ere jaitsi da erabilera.

Euskararen erabilera Adinaren arabera aztertzen bada, zenbat eta gazteagoak, euskararen erabilera handiagoa da. Horrenbestez, umeek egiten dute gehien, eta adinekoek gutxien. Gainera, aurrekoetan bezala, sumatu da haurren presentzia erabakigarria dela euskararen erabileran: euskara gehien nagusien eta umeen arteko solasaldietan eta zaintzan erabiltzen da, eta gutxien, nagusiak haurrik gabe daudenean.

Euskararen erabilera aztertzeko beste aldagai bat sexua da. Aurreko neurketetan ere nabaritu dute joera, eta oraingoa ere bai: emakumeek gehiago erabiltzen dute euskara gizonezkoek baino. Adin talde guztietan gertatzen da hori, adinekoetan izan ezik. Gazteen artean dago diferentzia handiena.

Euskararen kaleko erabilera Euskal Herriko lurralde bakoitzean aztertuta, hona hemen datuak::

- Euskal Herriko eremu guztien artean, Gipuzkoan nabaritu dute erabilerarik handiena, diferentzia nabarmenarekin: kalean euskaraz aritzen da ia hiru gipuzkoarretik bat. Hala ere, neurketa egiten dutenetik lehen aldiz, jaitsi egin da euskararen erabilera. %31,1eko erabilera indizea jaso dute Gipuzkoan, duela bost urte baino puntu bat eta erdi txikiagoa.
- Bizkaiari dagokionez, beherantz jarraitzen du euskararen kaleko erabilerak: %8,8 entzun dituzte euskaraz, duela hamabost urte baino ia bi puntu gutxiago. 2001etik aurrera hasi zen kaleko erabilera gutxitzen Bizkaian, eta oraingoz ez da galera hori eten. 1989ko neurraldia kenduta —%8,1eko indizea jaso zuten—, 2016koa da erabilerarik txikiena. Ondorioztatu da adin talde guztietan jaitsi da erabilera hamabost urteotan, nahiz eta azken bosturtekoan egonkor eutsi dioten umeek (2-14 urte) eta helduek (25-64 urte).
- Bestalde, Nafarroa, salbuespen nagusia da, erabilera puntu bat handiagoa baita 2011n baino. Kalean doazenen %6,7 entzun dituzte euskaraz. Hori dela eta, kontrako norabidea izan dute Nafarroan orain arte: 1990eko hamarkadako datuak baino apalagoak izan dituzte beti, eta urtez urte erabilera baxuagoa sumatu dute. 2016an irauli dute joera hori, eta galdutako gehiena berreskuratu dute. Adin taldeei erreparatuta, guztietan handitu da erabilera. Kontuan izatekoa da, gainera, aurreko hamabost urteetan ez atzera ez aurrera egon dela Nafarroako umeen, gazteen eta helduen erabilera.
- Ondoren, Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan beheraka jarraitzen du euskararen erabilerak. Izan ere, aurreko astean aurkeztutako inkesta soziolinguistikoak ere hala dio. Kalean %5,3 entzun dituzte euskaraz; duela hogeitau urte baino hiru puntu gutxiago da hori.





Hiru herrialdeetako eboluzioa batera ematen dute, jasotako elkarrizketa kopurua ez baita nahikoa bakoitza bere aldetik emateko. Hala ere, joera batzuk badira eremuka. Batetik, Nafarroa Beherean eta Zuberoan %14,6 entzun dituzte euskaraz, duela bost urte baino 4,6 puntu gehiago; bestetik, Lapurdin euskara gutxiago entzun dute, zeren BAM eremuan %1,6ko erabilera, eta Lapurdi barnealdean, %5,4koa. Adin taldeei erreparatuta, badira diferentzia batzuk Ipar Euskal Herrian. Batetik, umeen erabilera gorantz ari da 2006tik (%10,2 orain), eta gazteena eta helduena bere horretan daude. Bestetik, adinekoena jaisten ari da nabarmenki.

- Azkenik, Araban sumatu da erabilerarik txikiena: %4,6. Aparteko gorabeherarik ez du izan Arabak urteotan. Azken neurketak 2006ko datuaren parekoa eman du; hura da orain arteko onena. Adina erreparatuta, haurren erabilerak gora egin du Araban, izan ere, orain arteko daturik onena jaso dute: %7,5 eta helduenak ere bai. Adinekoena bere horretan dago, eta gazteena jaisten ari da 2006tik.

V. Ondorio bidetik

Honenbestez, azaldutako guztia kontuan edukita, hurrengoa dugu ondorio: egungo errealitateak, elkarri lotutako egungo munduak ez die mesede handirik egiten hizkuntza minoritarioei. Esaterako, sare sozialek ingelesaren eta gaztelaniaren erabilera sustatzen dute nabarmenki eta gehienetan ez dago euskaraz egiteko aukerarik.

Eskualdeko hizkuntzak kaltetzen dituzten faktore hauek guztiak gorabehera, orain arte egindako esfortzua, eta oraindik egiteko falta dena, honakoa xedea izan behar du: euskararen koofizialtasuna kontsolidatzea, hori da helburua. Adibidez, Arartekok lan egiten du hiritar guztion eskubideak behar bezala errespetatu daitezen, hizkuntza koofizialak erabiltzeko eskubidea hiritarren eskubidea denez, babestu egin beharko da gainerako eskubideak babesten diren modu berean.

Orobat, azpimarratu behar da euskara egoera ahulean dagoela gaztelaniaren aurrean, eta horrenbestez, nolabaiteko diskriminazio positiboa edo bultzada behar duela. Horretarako, euskal botere publikoen egitekoa oso garrantzitsua izango da, haiek baitira hizkuntza behar bezala sustatu eta bermatu dezaketenak. Horrekin batera, guztion ahalegina ezinbestekoa izango da, bi hizkuntza koofizialen benetako berdintasuna lor dezagun eta duela 40 urte Frankismoaren diktadurarekin euskarak pairatutako galerak berreskuratu ditzagun.